


Zangoza / 2022

# KULTUR AGENDA

## urria



Ayuntamiento de  
Sangüesa/Zangoza



CASA DE LA CULTURA DEL VALLE DE SANGÜESA  
PALACIO DEL VALLE DE SANGÜESA  
VALLESANTORO



Nafarroako  
Gobernua



NAFARROAKO  
ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia/Kultura-Etxea

**Kultura-zerbitzuaren udako arreta ordutegia:** astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

**Erakusketa Aretoko Ordutegia:** Asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta Instagramen eta [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea honakoetan kontsultatu: [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es)

 [www.facebook.com/culturasanguesa](http://www.facebook.com/culturasanguesa)  [www.instagram.com/culturasanguesa](http://www.instagram.com/culturasanguesa)

## Carmengo Entzunaretoa

**Aldez aurreko salmenta: urriaren 4tik aitzina** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) eta [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) web-orrien bidez.

**Tfnoa:** 948 870 251.

**Salmenta txartel-leihatilan antzezen egunetan:** Karmengo Entzunaretoako txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik.

**Argibide telefonoa:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko Ikuskizunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarria izanen da.

**Beharpenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoara sartzean, bai sarrera aretoan bertan erosten bada, bai internet bidez erosten bada.

### ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizuneh hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofona erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatirik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.


### ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es) posta elektronikoa edo deitu 948870251 telefonora, edo adierazi txartel-leihatilan erosketa egiterakoan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

# KULTUR AGENDA

## urria



- |           |    |   |          |
|-----------|----|---|----------|
| 1         | La | Erakusketa. "Sangüesa: antes y ahora" (Urriaren 2ra bitarte)                            | 4. Orr.  |
|           | La | Erakusketa. "Giza Duintasuna" (Urriaren 16era bitarte)                                  | 4. Orr.  |
| <b>2</b>  | Ig |   |          |
| 3         | Al |   |          |
| 4         | As |   |          |
| 5         | Az | Ipuin-kontalaria. "Sí y sí" (gaztelaniaz)   | 7. Orr.  |
| 6         | Og | Erakusketa. "Nafarroako artisten begirada Bidearen ezagutzari" (Azaroaren 6era bitarte) | 5. Orr.  |
|           | Og | Herritarren zientzia-jarduera. Saio teorikoa  | 10. Orr. |
| 7         | Os |   |          |
| 8         | La | Herritarren zientzia-jarduera. Txango ornitologiko gidatua                              | 10. Orr. |
|           | La | Antzerkia. "Ecos en el fango"   | 5. Orr.  |
| <b>9</b>  | Ig | Familia antzerkia. "Mis miedos favoritos"   | 6. Orr.  |
| 10        | Al |   |          |
| 11        | As |   |          |
| <b>12</b> | Az |   |          |
| 13        | Og |   |          |
| 14        | Os | Antzerki tailerra (izena emateko azken eguna)   | 9. Orr.  |
| 15        | La | Antzerkia. "Beautiful Stranger"   | 6. Orr.  |
| <b>16</b> | Ig |   |          |
| 17        | Al | Francisco Ynduráin Unibertsitatearen hasiera  | 9. Orr.  |
| 18        | As |   |          |
| 19        | Az | Ipuin-kontalaria. "Udazkeneko ipuin kutxa" (euskaraz)                                   | 7. Orr.  |
|           | Az | Hirigintza berritzailea. Parte-hartze prozesua  | 10. Orr. |
| 20        | Og | Hitzaldia. Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena, 1122-2022.                             | 8. Orr.  |
| 21        | Os | Haurrentzako dantza tailerren hasiera   | 8. Orr.  |
| 22        | La | Antzerkia. "Dos tablas y una pasión"  | 7. Orr.  |
| <b>23</b> | Ig |   |          |
| 24        | Al |   |          |
| 25        | As |   |          |
| 26        | Az | Hirigintza berritzailea. Parte-hartze prozesua  | 10. Orr. |
| 27        | Og |   |          |
| 28        | Os |   |          |
| 29        | La |   |          |
| <b>30</b> | Ig |   |          |
| 31        | Al |   |          |

Azaleko irudia: "Dos tablas y una pasión". El Brujo.

# Erakusketak



## “Sangüesa: antes y ahora”

### Argazki erakusketa

ZANGOZAKO ALBRETEKO ENRIQUE II.  
KULTURA-TALDEA ETA ZANGOZAKO  
ARGAZKI-ELKARTEA

### URRIAREN 2RA

Zangozaren sorreraren 900. urteurrena dela eta, antzinako argazki batzuk erakusten dira, eta, argazki bakoitzarekin batera, gaur egungo beste batzuk.

Gaur egungo argazkiak Argazki-elkarteak ekarri ditu, eta antzinako argazki gehienak Albreteko Enrique II. Kultura-taldearen Argazki-artxiboan daude.

**Antolatzailea:** Albreteko Enrique II. Kultura-taldea eta Zangozako Argazki Elkarteak.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



## “Giza Duintasuna: gelditzen ez den oihua”

### IRAILAREN 30ETIK URRIAREN 16RA

“Eskubide guztiak pertsona guztientzat” proiektuaren parte da erakusketa hau. 1948an Parisen egindako Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren eguneratze kritikoa da. Zenbateraino gara kontziente eta koherenteak Giza Eskubideak praktikan jartzearekin? Erakusketa irigarria eta gomendagarria da pertsona guztientzat.

## “COHESENCIA” parte hartzeko artelana

Erakusketa Vallesantoro Jauregian dagoen bitartean, nahi duen orok esku har dezake proiektu honetako obra artistiko baten sorkuntzan, zeinaren helburua pertsona askoren eskuei esker bizitza ibai bat egitea baita. Pieza txikiak eginen dira eta alfonbra handi batean batuko dira, abenduaren 10ean Iruñeko Gaztelu Enparantzan, pertsona guztiak harreran senti daitezten.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxekeo bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

**Antolatzailea:** Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia.



## Erakusketak



**“Nafarroako artisten begirada Bidearen ezagutzari”**

**URRIAREN 6TIK AZAROAREN 6RA**

Beren lan ibilbidean zehar Donejakue bideko paisaiak, monumentuak edo herriak islatu dituzten 22 artista nafarren margolan eta eskulturen erakusketa. Erakusketa hau 2021eko urrian inauguratu zen Nafarroako Parlamentuan, eta, ondoren, Bidearekin harremana duten herriak bisitatu ditu, hala nola: Viana, Los Arcos, Gares, Lizarra, Luzaide, Zizur Txikia eta orain, Zangoza.

Erakusketa Iruñeko Kondestablearen Jauregian bukatuko da azaroaren 15etik abenduaren 31ra, 2021-2022 urte santuak horrela amaituz.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko beheko solairuko Erakusketa Aretoa

**Antolatzailea:** Nafarroako Kazetarien Elkarte eta Nafarroako Gobernua.

**Erakusketa Aretoko ordutegia:** Asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

## Artes Eszenikoak

Karmengo entzunaretoan



**IPAR ESZENA BIDEA PROGRAMA**

**“Ecos en el fango”**

LA MACHINA TEATRO

**LARUNBATEAN, URRIAK 8**

**Antzerkilariak:** Patricia Cercas eta Elena Martinaya.

Bi ahizpa familiaren etxera itzuli dira, elkarrekin hitz egin gabe urteak eman ondoren, amaren hilketagatik eta anaiaren espetxeratzeagatik txikitatik bizi izan duten indarkeriaren izugarrikeria gaur egunera ekarriz. Baina baita zalantzak eta beldurrak ere: zer egin sendatu ezin diren zauriekin? Indarkeria ikasi egiten da? Barkatu al dakioke tratu txarrak ematen dituenari? Ba al dago hiltzaile bat maitatzerik?

Emanaldiaren ondotik, interesa duen orok Producciones Maestras konpainiako Ana Maestrojuan aktore nafarrarekin solasaldia izanen du.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 70 minutu. **Ordua:** 20:00.

**Aldez aurreko salmenta:** 8 €. **Txartel-leihatilan:** 10 €.

**Gazte Txartelarekin:** 5 €.

**Laguntzen du:** Nafarroako Gobernua.



# Artes Eszenikoak

Karmengo entzunaretoan



## FAMILIA ANTZERKIA

### “Mis miedos favoritos”

PRODUCCIONES MAESTRAS

#### IGANDEAN, URRIAK 9

**Antzerkilariak:** Ángel García Moneo eta Xabier Artieda.

“Nire beldur gogokoenak” haurtzaroan agertzen diren eta, anitzetan, helduarora arte lagun ditugun beldurretatik bidaia dibertigarria da. Gure aurrean hainbat beldur dibertigarri desfilatzen ikusiko ditugu, beste ikuspegi batetik, beldurra existitzen dela eta berarekin bizi behar dela ulertuta.

Musika eta ikus-entzunezkoa lagungarri izanen dira geure beldurak ezagutzeko, aurre egiteko, elkarrekin bizitzeko eta horiei barre egiteko behar ditugun atmosferak birsortzeko.

**Ikusleak:** 6 urtetik gorakoak. Haurrak eta sendiak.

**Iraupena:** 60 minutu.

**Ordua:** 18:00.

**Aldez aurreko salmenta:** 3 €. **Txartel-leihatilan:** 5 €.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS).

## ANTZERKIA

### “Beautiful Stranger”

LA CAJA FLOTANTE

#### LARUNBATEAN, URRIAK 15

**Antzerkilaria:** Ion Iraizoz.

2019ko maiatzaren 21ean, Ion Iraizozek bere berrogeigarren urtebetetzea ospatu zuen festa/performance bat eginez, eta «40 urte bete aurreko azken asteartea» deitu zion. Festa hartan aitak amak haurdunaldian idatzitako eta berrogei urtez ezkutuan egondako kontakizun bat irakurri zuen. “Beautiful Stranger” antzezpenean Ion Iraizozek bere burua antzetzten du bere urtebetetze festa publikoaren konplizitatearekin berreraikitzen saiatzeko. Bere iraganari begiratuko dio, ikuslea errealitatearen eta fikzioaren arteko bidegurutze baten erdian kokatuz.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 90 minutu.

**Ordua:** 20:00.

**Aldez aurreko salmenta:** 8 €. **Txartel-leihatilan:** 10 €.

**Gazte Txartelarekin:** 5 €.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernuak.



## Artes Eszenikoak

Karmengo entzunaretoan



### ANTZERKIA

“Dos tablas y una pasión”

EL BRUJO

**LARUNBATEAN, URRIAK 22**

“Dos tablas y una pasión” da antzerkia egoera garbiam. Obra horretan, El Brujok amodioaz eta amodioari buruz aritzeko egile batzuen moduaren inguruko antzerki joko bat taularatuko du, besteak beste, Cervantes, Lope de Vega, Shakespeare eta San Juan de la Cruz. Dena Javier Alejanoren biolinaren zuzeneko musikaz lagunduta.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 95 minutu.

**Ordua:** 20:00.

**Aldez aurreko salmenta:** 8 €. **Txartel-leihatilan:** 10 €.

**Gazte Txartelarekin:** 5 €.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



## Ipuin-kontalaria



### “Sí y sí”

(Gaztelaniazko ipuin-kontalaria)

VIRGINIA MORIONES

**ASTEAZKENEAN, URRIAK 5**

Dorletari asko kostatzen zaio erabakiak hartzea eta etengabe galdetzen dio bere buruari zer gertatuko zen beste zerbait aukeratu izan balu.

### “Udazkeneko ipuin kutxa”

(Euskarazko ipuin-kontalaria)

MAITANE PÉREZ

**ASTEAZKENEAN, URRIAK 19**

Uda joan zaigu eta udazkeneko koloreak ditugu inguruan. Udazkeneko basoak, udazkenaren magia. Zenbat ipuin ezkutatuko ditu udazkenak? Kutxa batean sartuko ote dira? Ikus dezagun!

**Ikusleak:** 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

**Ordua:** 18:30.

**Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

**Sarrera:** Doan edukiera bete arte.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.



## Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena



**“Historiarekin hitzordua” hitzaldi zikloa**

**OSTEGUNEAN, URRIAK 20**

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe Hitzaldi Aretoa.

**Ordua:** 19.00.

**Laguntzailea:** Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP).

## Argazki-lehiaketa



“Explosión de fiesta”.  
Ana Bernardo

**“Zangozako Jaiak 22” V. argazki-lehiaketa”**

Zangozako Udalak, Hezkuntza, Kultura, Euskara eta Jai Batzordearen bitartez, “ZANGOZAKO JAIK 2022” V. ARGAZKI-LEHIAKETA iragartzen du. Oinarriak eskuragai daude [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) eta [www.sanguesaculutra.es](http://www.sanguesaculutra.es) web-orrian.

## Tailerrak



**HAURRENDAKO SORTZE-DANTZAKO TAILERRAK**

2010etik 2018ra bitartean jaiotako haurrentzako dantza sustatzeko jarduera.

**Irakasleak:** Fueradeleje Dantza Konpainia.

**Datak:** Urriaren 21etik 2022ko ekainaren 9ra.

**Egunak:** Ostiralak.

**Ordu-kopurua:** 27. **Matrikula:** 54 €.

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe Erabilera Anitzeko Aretoa.

**Izen-emateak:** Urriaren 14ra bitartean Kultura-etxe Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara; baita 948 870 251 telefonora deituz edo emailaz [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es) helbidean.

**Gutxienezko ikasle kopurua:** 8.

**Gehienezko ikasle kopurua:** 15.

**Izena ematearen baldintzak:** Gutxienezko ikasle-kopurua lortuko ez balitz bertan behera geratuko litzateke. Eskaera toki eskaintza baino haundiagoa izango balitz eskatzaile guztien artetik zozketa bat egingo litzateke. Nork bi izen-emate egin ahal izango ditu gehienez ere. Ikastaroa Kultura-zerbitzuan ordainduko da izena emateko epea behin bukatuta eta aurreikusten den ikastaroa hasteko eguna baino lehen.

**HAUR-DANTZAKO TAILERRA (I)**

**Adinak:** 2017an eta 2018ean jaiotako haurrak.

**Ordutegia:** 17:15etik 18:15era.

**HAUR-DANTZAKO TAILERRA (II)**

**Adinak:** 2015 eta 2016ean jaiotako haurrak.

**Ordutegia:** 18:15etik 19:15era.

**HAUR-DANTZAKO TAILERRA (III)**

**Adinak:** 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014an jaiotako haurrak.

**Ordutegia:** 19:15etik 20:15era.





## Tailerrak



### ANTZERKI TAILERRA

Interpretaziora hurbiltzea antzerki-jolasen bidez.

Antzerki sormenaren prozesua ezagutuko duzu.

Gorputz-adierazpena, mugimendua eta begirada landuko dira, pertsonaiak eta istorioak asmatzeko.

Tailerrari amaiera emanen zaio partaideen antzezlan batekin Munduko Antzerkiaren Eguna ospatzeko.

Anima zaitez!

Proiektu hau Nafarroako Antzoki Sareak antolatu eta

Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta La Caixa

Fundazioaren laguntzarekin bultzatutako "Salto a

escena-Oholtzara Salto" proiektuaren parte da. Arte

eszenikoak gazteei hurbildu eta protagonista bihurtu nahi dituen ekimena.

**Zuzendaritza:** Quiero Teatro.

**Adinak:** 11tik 18ra.

**Eguna:** Osteguna.

**Ordutegia:** 18:00etatik 20:00etara.

**Gutxienezko ikasle kopurua:** 6.

**Gehienezko ikasle kopurua:** 12.

**Datak:** 2022ko urrietatik 2023ko martxora.

**Saio-kopurua:** 16. **Doako matrikula.**


**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

**Izen-emateak:** urriaren 14a bitartean Kultura-etxeko Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara; baita 948 870 251 telefonora deituz edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean.

**Antolatzailea:** Nafarroako Antzoki Sarea.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Kutxa Fundazioa eta La Caixa Fundazioa.

## Beste zenbait ekitaldi



### FRANCISCO DE YNDURAIN ADINEKOENDAKO UNIBERTSITATEA

Ikasturtea urriaren 17an hasiko da, arratsaldeko

ordutegian. Eskolak asteazken, ostegun eta

ostiraletan izanen dira, aukeraturiko irakasgai-

kopuruaren arabera. Ikasketak 18 urtetik

gorakoendako dira, 50 urte baino gehiago

dutenendako plazen % 70 erreserbatuta.

Horri buruzko informazioa jaso nahi duen orok 948

33 65 98 telefonora deituz eska dezake,

astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.

## Beste zenbait ekitaldi



### HERRITARREN ZIENTZIA-JARDUERA: HEGAZTIAK OSTEGUNEAN, URRIAK 6

**19:00etan:** Eskualdeko hegaztiei eta hegaztiendako interesgarriak diren lekuei buruzko saio teorikoa.

Baita giza jardueren eraginari buruzkoa ere.

**19:30ean:** Atsedendia. Freskagarri bat eta mokadu bat hartzera gonbidatuta daude bertaratutakoak.

**19:45ean:** Saio praktikoa eBird hegaztien behaketak erregistratzeko web-plataformari eta telefono aplikazioari buruz.

**Hizlaria:** Gonzalo Deán, Gorosti Natur Zientzien Elkartekoa eta Ardaska Elkartekoa.

**Lekuar:** Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

### LARUNBATEAN, URRIAK 8

**10:00etan:** Txango ornitologiko gidatua Zangozatik araztegiara eta hegaztien erregistrora.

**Topalekua:** Andre Maria Erregina elizaren ondoko aparkalekua.

Prismatikoak eta oinetako erosoak eramatea gomendatzen da.

**Antolatzaileak:** Gorosti Natur Zientzien Elkartea eta Ardaska Elkartea.

**Laguntzailea:** Zangozako Udaleko Gizarte Gaietako, Osasun eta Ingurumen Alorra.



### HIRIGINTZA BERRITZAILEA

**Herritarrek parte hartzeko prozesua,  
Prau eta bere ingurua berrurbanizatzeko  
Esparru Plana egiteko**

### ASTEAZKENEAN, URRIAK 19 ETA 26

Espazioa herritarren beharretara egokitzeko, beroboladei erresilienteago egiteko eta inguruko eremuetarako pasabide atsegina bihurtzeko, saio bat ireki da lehen zirriborro bati buruzko ideiak azaldu eta eztabaidatzeko.

**Ordua:** 19:00.

**Lekua:** Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

**Antolatzailea:** Zangozako Udala.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentua.